

Familia eta gustuak

1

BIDEOAREN EDUKIAREN LABURPENA

Bideoa sei zati edo atal nagusitan dago zatitua. Gehienetan, ataleko albiste bat jorratzen da. Atalek euren helburu eta edukiak dituzte. Atal bakoitza bere izenburuarekin hasten da eta, ia beti, bukatzen atalean landutako hainbat kontzeptu gramatikal, pantaila bereziaz gogoratuz.

Gida didaktiko honetan pantaila bereziak dituzten atalak “**Pantaila gramatikal berezia**” leloaz adierazten dira.

Pantaila berezi hauetan, atalean esandako esaldi bat edo gehiago errepikatu ondoren, esaldiak gordetzen duen kontzeptu gramatikala adierazten da, errotulu bidez. Horregatik, pantaila hauetara iristean, agertzen dena landu ahal izateko, bideoa gelditzea proposatzen da.

OHARRA: Zintaren hasieran, 2 minutuz, koloreetako ohiko barrak eta txistu hotsa dituzu zure telebistaren koloreak eta hotsa egokitzeke.

Lehen kanpai hotsa entzutean, jarri bideoaren denbora neurgailua 00:00etan.

SARRERA (00:00) Lehenbizi, albistegia gidatzen duen Bakarnek ongi etorria ematen digu. Ondoren, bere burua aurkezten du eta Mirutegian dihardutenak familiakoak direla esaten digu. Jarraian, albistegiko teknikariak aurkezten dizkigu, banan-banan. Bukatzeko, kazetariei euren buruak aurkez ditzatela esaten die.

GIZARTEA (03:00) Anak, gizarte gaietarako arduradunak, zebrabideetan ibiltzeko aholkuak biltzen dituen liburuaren berri ematen digu. Antza denez, Udalak argitaratu du liburua. Anak berak, antzeztuz, aholkuen berri emango digu.

“Pantaila gramatikal berezia”

INGURUMENA (06:00)

Miren, ingurugiro gaietarako arduraduna, Gorbeia Parke Naturalera joan da hango berri emateko. Lehenengo, parkearen azalpena egiten du. Horretan diharduela, perretxiko bila dabilen norbait ikusten du eta elkarrizketa egiten dio.

“Pantaila gramatikal berezia”

ELKARRIZKETA (08:50)

Elkarrizketa MTBren egoitzan garatzen da. Bakarnek *Ezpeldoiko jaun kuntia*ren alhaba zena elkarrizketatzen du. Kontua da Ezpeldoiko alaba oso triste dagoela, bere maitea Bereterretx hil egin dutelako, oso modu harrigarrian.

“Pantaila gramatikal berezia”

KIROLAK (11:33)

Kirolen atalean Torpedo taldera datorren jokalaria berriaren aurkezpena izan da Ander eta mutilaren berri ematen digu.

“Pantaila gramatikal berezia”

LEHIAKETA (14:53)

Atal honetan ondoko jolas hau proposatzen digu Jonek, Mirutegia Telebistako kazetariak:

Jon:

Horra azalpena:

Ander nire lehengusua da eta sagarra gustatzen zaio. Bakarne nire arreba da eta laranja gustatzen zaio. Lide nire izeba da eta intxaurra gustatzen zaio. Ni Mamuren semea naiz eta udarea gustatzen zait. Nagore nire ama da eta gerezia gustatzen zaio. Ana nire arreba da eta mahatsa gustatzen zaio. Joseba nire osaba da eta mahatsa gustatzen zaio.

Horra galdera: Zer gustatzen zaio Bakarneren ahizpari?

Azkenean Jonek pista bat ematen digu:

Jon:

Nire amaren alabaren nebaren aitaren emaztearen koinata Mamuren arreba da.

HELBURUAK ETA EDUKIAK

SARRERA

HELBURUA

Nork bere buruaren eta lagunaren aurkezpen sinpleak egiten ikastea ahaidetasun hiztegia erabiliz.

EDUKIAK

HIZTEGIA

Sendia / Familia / Aita / Ama / Alaba / Semea / Neba / Arreba / Ahizpa / Anaia / Lehengusua / Lehengusina / Osaba / Izeba / Koinatua / Koinata / Suhia / Erraina / Senarra / Emaztea

LANBIDEAK

Kamera operadorea / Soinuen arduraduna
Apaintzailea / Argiztatzzailea / Kazetaria

ADITZAK

Gustatu, gustatzen /
Eduki (dauka, daukat, daukazu)

GIZARTEA

HELBURUA

Gauzak zertarako diren eta proposamenak egiten ikastea.

EDUKIAK

ADITZAK

Argitaratu / Gurutzatu / Erabili
Aholkatu / Proposatu / Agindu

ERAKUSLEAK

Hau, hori, hura.

HELBURUZKO PERPAUSAK: -T(Z)EKO

Zebrabidea galtzada gurutzatzeko pasabidea da.

NOMINALIZAZIOA: -T(Z)EA

Gurutzatu aurretik ondo begiratzea aholkatzen da.

INGURUMENA

HELBURUAK

Deskribapenak burutzea. Elkarrizketa sinpleak gauzatzea.

EDUKIAK

HIZTEGIA

Amuarraina / Pagoa / Perretxikoa / Eredua

PERPAUS KONPLETIBOA: -(E)LA, -(E)NIK.

Eta zuk uste duzu perretxiko hori ona dela?

ESAMOLDEAK

Inporta ez bazaizu. Hara zer daukagun hemen. Ez izan dudarik.

Hori esaten dute denek.

ADITZA

Egon (nago, dago, daude, badaude)

LEKU-ADBERBIOAK

Hemen, hor, han.

Horra hor, hona hemen.

ELKARRIZKETA

HELBURUA

Ulermena lantzea.

EDUKIAK

PERPAUS KONPLETIBOA: -(E)LA.

Badakit oso gaizki pasatzen ari zarela.

ELKARKARIAK

Elkarrekin oheratu gara.

EUSKALKULTURA

-Bereterretxen kantorearen poeman (Haltzak ez du bihotzik) oinarritutako egokitzen librea da. Bideoa ikusi aurretik irakurri poema.

KIROLAK

HELBURUA

Pertsonen deskribapena egitea.

EDUKIAK

ADJEKTIBOAK

Sendoa, azkarra, trebea, bikaina, bortitza, alaia, ederra.

DENBORAZKO PERPAUSA: -(E)LA

Baloia oinetan **duela** oso trebea da.

INGURUMENA - ELKARRIZKETA

Perpaus bakuna perpaus konpletibo bilakatu.

—Ikasle batek perpaus bakun bat osatzen du. Lagunek, ezezko zein baiezko, perpaus konpletibo bilakatuko dute.

Adibidez:

-Javi Moreno jokalaria ona da.

-Bada, nik uste dut Javi Moreno ez **dela** jokalaria ona”

Erabili konpletiboetako ohiko aditzak:

uste izan, pentsatu, iruditu, sinetsi, esan, irudikatu, aipatu

—Mikel Laboaren bertsiio musikatua entzun “**Altzak ez du bihotzik**”

EBALUAZIOA

Ikasleei zuhaitz genealogiko bat asma eta marraz dezaten eskatuko diegu. Ondoren, zuhaitz horretan agertzen diren pertsonaien izena, lanbidea, itxura fisikoa, gustuak eta euren arteko ahaidetasuna erabakiko dute.

Hori eginda, zuhaitzaren barrenean, pertsonaia bakoitzaren ezaugarriak idatziko dituzte, bideoan ikusitako eta aldeztatik landutako kontzeptuak erabiliz.

Bukatzeko, paperean prestatu dutena klaseko beste lagunen aurrean ahoz azaltzeko eskatuko diegu.

Lan hau taldeka nahiz bakarka egin daiteke. Taldetan egiten badugu, lehendabizi, idatziz egin beharreko lanean, denek hartuko dute parte, nahiz eta taldeko batek idatzi. Gero, azalpenak ahoz ematerakoan, zuhaitzeko pertsonaiak taldeko partaideen artean banatuko dituzte eta bakoitzak bereak aurkeztuko.

EBALUATZEKO

Idatzizko lanean kontuan hartuko dugu:


- paperean prestatutako txostena txukun dagoen.
- esaldiak egokiro osaturik dauden.
- bideoan eta bideo ikusi aurretik landutako kontzeptuak moldezt erabili dituzten.
- zenbat kontzeptu erabili duten.

Ahozko saioan ere lau puntu hartuko ditugu kontuan:

- azalpenak egiterakoan era ordenatuan egiten dituzten.
- esaldiak ongi osatzen dituzten.
- klasean landutako kontzeptuak moldezt erabili dituzten.
- zenbat kontzeptu erabili duten.

Oro har, kontuan hartuko dugu ikasle bakoitzaren jarrera eta taldeari egin dion ekarpena.

Azkenean, informazio hori guztia kontuan harturik, ikasle bakoitzaren lanaren balorazioa egingo dugu.



EBALUAITZEKO PROPOSATZEN DEN ORRIA

Lehendabizi, eman izen bat koadro bakoitzari, eta ondoren erantzun ondoko galderari, eurretan agertzen diren hizki larrietan dagokien izena emanaz.

Zer ahaidetasun dute H-k eta I-k? Eta I-k eta E-k? Eta B-k eta G-k?

Zer egitea gustatzen zaio D-ri? Eta H-ri? Eta J-ri?

Zer da lanbidez C? Eta A? Eta F?

Nolakoa da F? Eta D? Eta B?

Galdera hauen erantzunekin eta zuk asmatutako beste batzuenekin prestatu testu bat, familia honen berezitasunak agertuz.

.....

.....

.....

.....